

Ordizia

3

Herritarrok protagonista
gu egile, gu eragile



Kattalinen lagun berriak

Gure herriko zenbait pertsona • Udalaren zereginak

Kultura • Kirola • Festak • Elkarteak • Eskola • Hedabideak

Lege gordailua: SS-259/2012
Argitaratzailea: Ordiziako Udala.
Kordinazioa: iametza interaktiboa.
Edukien egileak: Lurdes Mujika Agirre, Patxi Zubizarreta.
Diseinua eta ilustrazioak: Garbine Ubeda Goikoetxea.
Argazkiak: Ordiziako Udal Artxiboa eta webgunea.
Kolaboratzaileak: Ordiziako Udaleko Kultura Saila, Siadeco (12. eta 13. orrialdeetako datuak eta estatistikak), Jakintza ikastola, Urdaneta ikastetxea.
Inprimategia: ANTZA, S.A.L.



*Lehenaldia
historia da,
eta misterioa
etorkizuna,
baina orainaldia
oparia da*

KATTALIN LAGUN BERRIEKIN



Zemuz, labas, zelan?

Kaixo lagunok!
Gogoratzen al duzue liburuotan sarri aipatu dugun esaera zaharra?

*Lehen hala,
orain hala,
gero ez jakin nola.*

Elkarrekin —teleskopio batekin bezala—, ikasi eta ikusi genuen gure herria nola sortu zen orain dela urte asko: lehen-lehen. Hau da, San Bartolometik muinora nola igo zen, eta zergatik eraiki zuten harresia.

Elkarlanaren bitartez —prismatikoekin bezala—, ikasi eta ikusi genuen auzoetan nola zabaldu zen: lehenago, bai, baina orain daukagun herria sortzeko.

Elkar hartuta —geronen begiekin edo betaurrekoekin bestela—, ale honetan ikasi eta ikusi egingo dugu, dagoeneko, zer egin dezakegun orainaren protagonista izateko eta etorkizuna behar bezala prestatzeko: gero...

Herri bezala, gure arbasoak izan zirelako gara gu. Bai, baina, bakoitza bere nortasunarekin, bakoitza besteekin. Adibidez, aurtan gure gelara etorri diren bi ikasleekin: Zaina, Marokotik eta, Gotzon, Bizkaiatik.

Eta guk haiei 'Zemuz?' galdetu diegu, hau da, 'Zer moduz?', eta haiek ere 'Labas?' eta 'Zelan?' galdetu digute guri. Eta orain irrikaz gaude Ordizia haiei erakusteko eta elkarri honela esateko: ondo, bejair, ederto.



ERAKUTSI HERRIA

Lagunduko
al didazue
Zainari eta
Gotzoni herria
erakusten? Zer
esan, ordea,
Ordiziari buruz?
Izan ere,
hainbeste dago
esateko!
Labur-labur,
hamar esaldi
telegrafikoren
bitartez, zer
esango genieke
gure herriaz?



1.
2.
3.
4.
5.
6.
7.
8.
9.
10.



Ez da erraza herri bat eraikitzea, eta are gutxiago herri horren bizimodua antolatzea eta arautzea, baina horren ardura Udaletik hasten da, hain zuzen ere herritarrengandik hurbilen dagoen erakundetik.

Herritarrek aukeratua, Udalak herritar gehienek iritzia aintzat hartu beharra dauka, eta lan egin haien kezka eta beharrak gauzatu daitezten.



Informazioa Ordiziako udaleko webean duzu



www.ordizia.org

UDALA



BILATU

Udalaren lanak asko eta askotarikoak dira, eta horiek bideratzeko sail eta zerbitzu ugari behar dira. Ba al dakizu Ordiziako Udalekoak zein diren?

Udaleko zerbitzuak

.....

.....

.....

.....

.....

Udaleko sailak

.....

.....

.....

.....

.....

Ikusi duzun bezala, Ordiziako Udaleko webgunean informazio interesgarri gehiago ere badago. Zer nabarmenduko zenuke?



HERRIKO ALKATEA BANINTZ...

Honezkero jakingo duzu, Ordiziako haurrek ere alkate-alkatesa, agoazila... izateko aukera dutela urtean bi egunez. Noiz ordea? Ba al dakizu zeintzuk diren beraien egitekoak? Nola janzten diren? Amona Agedak dioen bezala, 'Ez baldin badakizu, galdera da egia jakiteko era!'. Laburtu hemen!



.....

.....

.....

.....

.....



Aitona-amonei bisita

Kattalin bere lagun berriekin —Zaina, Gotzon, Katia— aitona-amonen baserrira igo da. Ordizia hobeto ezagutzearren, Kattalinekin mendi aldeko ikusmira ezagutarazi nahi die.

Amona Ageda: Kaixo, kaixo, launok!

Aitona Peru: Ongi etorri! Ze berri, Kattalingorri?

Amona Ageda: Gaur ezingo dezue 'Zarrak berri' esan, ezta? Ta, zure lagun hoiek zein ta zein die ba?

Kattalin: Kaixo! Hauek Zaina, Gotzon eta Katia dira, gure artean bizi dira orain. Gotzon Bizkaitik etorri da, Katia Errumaniatik, eta Zaina Marokotik.


Aitona Peru: Afrikarra, hortaz! Nik soldauska hantxe ein nun ba.

Zaina: Bai!? Etzazu esan! *Labas?*

Aitona Peru: *Bejair, alhamdulillah.* Zenbakik e oaindio gogon dauzket: *wahad, itnin, talata...*

Zaina: Harrapazazu, zuek esaten dezuen modun. Ze txikie dan mundue.

Amonak sukaldera pasarazi ditu. Mahaira eseri dira denak eta amonak mokadutxo eskaini die, baina Kattalinekin idea hobea proposatu dio amonari: kanpora atera eta haiek ekarritako jakiekin piknika egitea.



Amona Ageda: Nere lamiatxoari afari-merienda alkarren platerekin eitea buruatu zaio. Guk mamie prest daukeu, ta gaztaie, eder askoa.

Katia: Ordiziarroi aza esaten dizuetenez, nik aza hostokin bildutako haragie ekarri det, *sarmalea*.

Gotzon: Ba nik pamtixa ekarri dot. Txoixoa ekarri gure neban, txitxiburduntzia eiteko, baie uste dot musulmanak ez dabela jaten.

Zaina: Arrazoi dezu, Gotzon. Guk txerriak ezin jan. Nik pastak karri ditut, sesamoz egindako galletak.

Aitona Peru: Baño tea re ein beharko diuzu, ala?

Arrats giro ederra dago. Baserri ondoko zelai batean mantela zabaldu eta gainean eseri dira denak, afari-meriendaren bueltan, kontu-kontari.



Aitona Peru: Aizu, Zaina, ataidazu hirugarren basoerdia!

Amona Ageda: Jesus, Marie ta Koxme! Itoko haiz gizona!...

Kattalin: Horra, Mari, zerua zeharkatuz!

Gotzon: Gurean, Anbotoko damea esaten jako! Handik etorri ei da, Aralar aldera joateko edo.

Kattalin: Aitona, kontatuko al diguzu ipuie?

Aitona Peru: Kontauko ez det pa! Ta geo *Lapurren leizea*, Ataun alden kontatzen da ta *Ali Baba ta berrogei lapurrak* ematen do. Zuekin kontu zarrak salbauta dare, gero!

Gotzon: Ipuinen amaieran, guk zera esaten dogu: *Egie ala gezurre, begi bien artean sudurre!*



KONTU-KONTARI

- **Zuk zeuk** ere ziur izango duzula inguruan norbait istorio politak kontatzen dituena; aitona, amona, izeba, osaba edo bizilaguna... Esaiozu zerbait kontatzeko gero zuk gelan zure ikaskideei azaltzeko. Edo animatzen bazara, gelara bertara etortzeko esaiozu.
- **Izan** gelakideei galdetuta, izan libururen batean begiratuta, ikasi, idatzi, eta kontatuko al duzue munduko beste bazterren bateko ipuinen bat? Eta sukaldaritzako errezetaren bat?



MILA KOLORE

Aitona Peru: Garai batean, jende asko Euskal Herritik kanpora lan bila joan zen: batzuk artzain, bakarren bat pilotari, arrantzale... Baina Historia oso gorabeheratsua da eta gero hemen sortu zen lana, langileak hemen behar izan ziren, bertako lantegietan, eta herria erabat aldatu zen. Makina bat jende Galiziatik, Extremaduratik, Andaluziatik etorri zen. Azken hamar urtean ere, antzeko egoera bizi izan dugu, baina oraingoan jendea askoz urrutiagotik etorri zaigu, eta atzerritarrek beren hizkuntzak ekarri dizkigute!

Lanbideak mugiarazten du sarritan jendea hara eta hona, bizi-baldintza duinetan bizitzeko ahaleginak. Zenbaitetan, gerratik eta gosetetik alde egin beharrak ere bai.

Kattalin: Aitona, zuk zeuk baduzu Ternua aldean, Ipar Amerikan lagun bat, ezta?

Aitona Peru: Bai horixe! *Haundie* esaten genion, imajinatuko duzue, txiki-txikia zelako. Ternua inguruan arrantzale ibili zen, bakailaotan, lehen euskaldunak baleetan ibilitako itsas aldean. Hangoak dira inuit-ak, eta hangoa da berak noizbait aipatu zidan esaera hau: «Lehenaldia historia da, eta misterioa etorkizuna, baina orainaldia oparia da». Ez zaio arrazoirik falta, eta beharbada horixe dagokigu guri, zuei bereziki: orainaldia opari eder eta preziatu bat bezala, txukun, tajuz, errespetuz erabiltzea!



ZENBAT GARA?

Taula honetan ikus dezakezun bezala, Ordiziako biztanle etorkinen kopurua nabarmen hazi da azken 10 urteotan.

Osa itzazu hutsik dauden laukiak.

Datuak aztertuta, zer nabarmenduko zenuke populazio ordiziarraren azken urteotako bilakaeran? Nolako iruditzen zaizu etorkinen presentzia?

URTEA	BIZTANLEAK GUZTIRA	BIZTANLE ETORKINAK	ETORKINAK (%)
2012	9.817	1.342	
2011	9.811	1.314	
2010	9.758	1.249	
2009	9.732	1.224	
2008	9.758	1.215	
2007	9.339	741	% 7,93
2006	9.188	566	% 6,16
2005	9.025	434	% 4,81
2004	8926	295	% 3,30
2003	8.962	215	% 2,40


Iturria: INE.

Datu hauekin egunkari bateko albistea osatu beharko bazenu, nola azalduko zenuke?



OSATU

Goiko taulako datuak baliatuz, osatu ezazu ondoko grafikoa.



AZTERTU

Nondik etorri ote da, ordea, jendea? Goazen aztertzeraz. Hona hemen 2011ko datuak.

Zein kontinentetatik etorri da gehiengoa?

Kontinentea	Herrialdeak	Kopurua
Europa		
Afrika		
Amerika (Hego Amerika, AEB, Kanada)		
Asia		
Ozeania		


Antzeko bilketa egin dezakezu zeure etxean. Hiru belaunaldi azter ditzakezu.

	Herrian jaiotakoak	Kanpoan jaiotakoak
Gu		
Gurasoak		
Aitona-amonak		

Atzerritar etorkinen jatorria (2011)

Lehen 20 herrialdeak	kopurua	%
Errumania	851	64,76
Ekvador	74	5,63
Maroko	61	4,64
Portugal	36	2,73
Argentina	31	2,35
Nikaragua	30	2,28
Txile	24	1,82
Kolonbia	23	1,75
Dominikar Errepublika	19	1,44
Peru	18	1,36
Kuba	17	1,29
Pakistan	15	1,14
Britania Handia	13	0,98
Aljeria	12	0,91
Bolivia	9	0,68
Honduras	8	0,60
Venezuela	7	0,53
Ukraina	7	0,53
Italia	6	0,45
Frantzia	6	0,45

Iturria: INE.



Pertsonak egiten dute herria. Pertsonak ematen diote izaera eta kutsua. Batzuk ezagunak dira, ospetsuak ere bai bakarren bat; beste batzuk oharkabean geratzen dira, baina isilean ere gauza eder askoak egin daitezke. Edozein modutan, biak ala biak dira beharrezkoak. Gainera, bizitzan zehar boladak egon daitezke...

GURE HERRIKO ZENBAIT PERTSONA

Ordiziako historian makina bat pertsona nabarmendu ditzakegu. Hona hemen batzuk-batzuk: gai izango al zinateke argazkia eta deskribapen laburra zuzen lotzeko?



Enma García
Kazetari eta aurkezle ospetsua. Aurrena Bosnia aldean ibili zen, Nafarroako egunkari batean gero, harik eta Telecincok fitxatu zuen arte, baina ETB-n eta Canal Plusen jarduna da. Hainbat sari jaso ditu.

Asier Mendizabal
Bilbon, Londresen eta Amsterdamen arte ikasketak egin eta gero, artista honen obra munduan barrena egon da ikusgai —izan fotomuntaketak izan eskulturak—, eta denean izan da goraiatua.

Gema Arrugaeta
Bartzelonan trebatutako argazkilaria ezaguna, esperientzia zabala erakutsi du munduko hainbat paisaia, herrialde eta kulturatan. Bere begirada propioa zenbait liburu, dokumental eta egutegitan gozatu daiteke.

Pello Ramirez
Txelo eta akordeoi jotzailea, zenbait musikariri laguntzen ibili da —Xabier Lete, Benito Lertxundi, e.a.—, baina antzerki eta telesailtako musika ere konposatu du, eta bere disko propioak dauzka: *Haize oihalak*, *Eskuz lurrari...*

Miren Etxezarreta
Espainiako gerra zibilaren urtean jaioa, Londresen ekonomian doktoratu, eta Bartzelonako unibertsitatean irakasle izan zen. Ezkerreko pentsalari eta gizarte mugimenduetan ekintzailea dugu. *Qué pensiones, qué futuro* liburuaren egilea da.

Ainhoa Garmendia
Ordizian hasitako musika ikasketak Madrilan eta Vienan jarraitu zituen. Geroztik eszenategi eta opera askotan ikusi eta entzun ahal izan dugu. Bere ahotsa, besteak beste, *Bihotzeko Amalur* diskoan entzun daiteke.

Bernardo Alberro
Gaztetan lan istripu bat izan ondoren, ikusmena galdu, eta esku soinua ikasteari ekin zion. Musikari autodidakta, beraz, baina oso maitatua, hainbat herri eta txokotan ari izan baita. Besteak beste, *Ordiziarrek gera* kantua ezaguna konposatu zuen.

Fermín González, Kifi
CAFen lan egiten zuen arren, ustekabean kazetaritza lanetan hasi zen eta lau hamarkada igaro zituen, *El Diario vasco* egunkarian, Ordiziako berri ematen. Istorio txikien eta pertsona xumeen zalea, Udalak Danbor Nagusia saria eskaini zion.

Alazne Furundarena
Eskola garaitik dabil atletismoan eta Gipuzkoako abiadura lasterketari onena izatea lortu du. Nazioarteko bi txapelketatan parte hartu eta gero —Venezuelan eta Helsinkin—, 2016ko Joko Olinpikoak ditu amets.

Marikarmen Odriozola
Irakasle ikasketak egin arren, irrati esatari amaitu zuen, Ser katean eta, bereziki, Euskadi Irratian. Ordiziako hainbat ekitaldi eta ospakizun aurkeztu ditu eta haurrentzako *Urrezko giltza* liburu-diskoan ere entzun dezakegu.



KUTTURRU



Mikel Garmendia pertsona xume horietakoa izan zen 37 urte bete arte. CAFen ikasi eta lan egin zuen, baina baita familiako arraindegian ere; errondailan parte hartu zuen, dantza eta antzerki kontuetan, eta, askok eta askok, beharbada gogoan izango dute danborrada matutinan barrileroen zuzendari ateratzen zelako, barre artean serio.

Mikel Garmendia, ezizenez, Kutturru, pertsona moztaka zen, beltzarana, lagunena laguna eta alai oso. Aldi berean Kixote eta Santxo ematen zuen: flakoxta izatez, erabat loditu zen gaixotasun baten eraginez. Dena dela, Kixote ere izan zen ausardia eta kemena behar delako 37 urterekin antzerki eskolan hasteko, eta gero bide horri tinko eusteko. Eta Santxo izan behar, sena izan behar, noski, gerora egokitu zitzaizkion hainbat rol eta nortasun interpretatzeko: aldarte oneko, umoretsu, etxekalte...

Antzerkigintzan, *Ama begira zazu* eta *El florido pensil* lanak nabarmendu ditza-kegu; zineman, *Kareletik* —Balantxas zen han— edo *Maite*; eta telebistako telesailetan, *Goenkale*: zenbatek ez ote zion 'Joxemari' esango kalean zihoala ere! Ordiziatik Donostiara bizitzera joanda, hamaika tokitan, hamaika lanetan jardun zuen eta 1987an Cartagenan gizonezko aktore onenaren saria eman



zioten. Tokitan geratu zen lehengo Mikel ordiziar xumea! Hala ere, saririk handiena jendearen estimazioa izan zuen, gure ordiziarra oso aktore preziatua eta estimatua izan baitzen. Hau guztia gogoratuta, inondik ere lehenaldia opari bihurtu zuen gizona ematen du.

Edurne alaba, antzerkia gustuko izan arren, Euskadi Gaztean ari da eta Mikel semeak filmen bikoizketa lana hartu zuen lanbide. Aitaren arrastotik hurbil samar biak ala biak ere.



Zein lanetan aritu izan zen Mikel Garmendia ordiziarra?

Azpimarratu itzazu Kutturruen izaera eta itxurarekin zerikusia duten izenondoak.

Gizon edo emakume, bururatzen al zaizu gaur egungo antzerki aktoreen bat?

Herri baten kultura modu askotara agertzen da: musikan, artean, literaturan, dantzan, kiroltan, festak egiteko moduan... Batzuetan bakarka, bestetuetan taldeka, kultura herri baten bizitasunaren termometroa da.

KULTURA AZTERTZEN

Zalantzarik gabe, gure herrian kultur adierazpide asko dago, asko dira urtean zehar egiten diren ospakizunak.



AZALDU

Argazki bakoitzaren arabera, zer ari dira ospatzen ordiziarrak?





Ordiziako martxa

Aizkorritik behera
ibai bat, Oria,
herri bat, Ordizia.
Luze harresia,
luze historia,
bertan gure kabia. (denok)

Izan zan suterik,
baita uholderik. (gizon)

Txindoki magalean pozik,
halaxe sortu zan gure Ordizi.
Goierrri bihotzean pozik,
herriak nahi izan zuen hor bizi. (denok)

Lehen hala, orain hola,
gero ez jakin nola. (haurrak)

Txindoki magalean pozik,
halaxe sortu zan gure Ordizi.
Goierrri bihotzean pozik,
herriak nahi izan zuen hor bizi. (denok)

Ikusten al dezu
baserritarra,
artzaina, lorazaina?
Txerremen, sagarra
hor barra-barra,
poltsa beteta
doa kaletarra. (gizon)

Entzuten al dezu
behien marruma,
entzuten irrintziak?
Gaztaiarena
da erresuma,
usain-koloreen
edertasuna. (gizon)

Billapranka zana:
San Bartolome,
hurrena Santa Ana.
Bada zeresana.
Zerana zerala,
etorri gugana. (denok)

Ezbehar haietatik
atera ziran onik. (emakume)

Alkarrekin aterako
gera nola edo hala. (haurrak)

Peri eguna da,
gaur da azoka,
trena dator gainezka.
Mendeetako
asteazken festa:
hau bezelakorik
munduan ez da! (emakume)

Euskal jaiak dira,
ohitura zaharra:
mendia kalean da,
Euskal Herriak
hemen batzarra:
hau bezelakorik
munduan ez da! (emakume)

Ordiziarrok, ordiziarrok (gizon), segi beti bizkor! (emakume)
Ordiziarra, ordiziarra (gizon), beti izan jatorra! (emakume)

Sumatzen al dezu
larritasunik,
halako makil hotsik?
Buztuntza aldetik
murmurioa
sigi-saga doa
segizioa. (gizon)

Kantaurin Oria,
Urdanetak hala
munduaren berria.
Kantuan herria,
plazan danborrada,
gora Gurrutxaga!(denok)

Horra barril hotsa,
danbor abarrotsa. (gizon)

Txindoki magalean pozik,
halaxe sortzen da gure Ordizi.
Goierrri bihotzean pozik,
herriak nahi izango du hor bizi. (denok)

Lehen hala, orain hola,
gero ez jakin nola. (haurrak)

Hau hala bazan edo ez bazan
sartu dadila azkar kalabazan,
ateratzeko gero martxan
Ordizia gure herriko plazan. (haurrak)

Horra danborrada,
hasi da festa!
Frontoia Beti Alai,
plaza ere bai,
kalejiran blai:
hau bezelakorik
munduan ez da! (emakume)

San Juan bezperako
suak bezela,
erre penak, tristeziak!
Benetako ondare,
bandak gorazarre,
guztiok irribarre! (denok)

Martxaren konpasa
geroaren arnasa. (emakume)

Alkarrekin aterako
gera nola edo hala. (denok)



LANDU

- Ordiziako martxaren letra arretaz irakurri —kantatu ere bai!— eta gero, azpimarratu bertan agertzen diren izenak: herriarenak, santuenak, pertsonaienak, ibaiarena...
- Taldeka, ausartuko al zinatekete azoka, euskal jaiak eta danborrada aipatzen diren bertsoak zuen erara moldatzera?

UMEAK PROTAGONISTA

Ordiziako jaiek ohitura edo usadio bakanak eta propioak dituzte. Horietako bat, 1964an sortu zen haur danborrada da, urte askoan haur katekesiakoei antolatua. 1974az geroztik, Santa Anaren omenezko jaien aurreko asteburuan, haurrei jai giro eta egitarau bikaina eskaini izan zaie. Hala ere, lehenago ere uztaileen 28an ospakizun bereziak antolatzen ziren, esate baterako, haur jolasak eta aureskua.



Urtean zehar ere ekintza ugari antolatzen dira umeentzat bai udalak antolatuta, bai eskolak antolatuta. Bururatzen al zaizu bat edo beste? Zuk parte hartzen al duzu bakarren batean?

ZURE TXANDA

Egin kontu udaletxeko kultura sailak haurrentzako kultura agenda berri eta zabaltzeko. Datorren urtetik aurrera gauzatuko diren ospakizun eta ekitaldi horietarako, ordea, zuen laguntza behar dute. Zer egingo zenukete gustura? Zein urte sasoi? Bururatzen al zaizue gerora ere gogoratuko den ospakizunen bat? Jarri taldeka eta ekin lanari.



KIROLA

Ordizia, betidanik kirol tradizio handiko herria izan da. Hain zuzen ere kirolaren inguruan sortutako elkarteak ugariak dira gurean.

Jende askok egiten du gaur egun kirolen bat; dena dela, batzuk-batzuk geldi egonean nahiago... Nola animatuko zenukete jendea kirola egitera? Zein onura dakar, zergatik gomendatuko zenukete?



Zainak eta Gotzonek kirolen bat egiteko gogoaz azaldu dute. Ez dakite, ordea, Ordizian zer aukera duten edo nora joan behar duten galdetzera. Lagunduko al diegu? Kirola non egiten da?

Herritarren lana lau urtean behin botoa ematea eta agintariak aukeratzea baino askoz gehiago da. Helburuak eta planak paperetik atera, eta praktikara eraman behar dira, eguneroko bizimodura. Horretarako, oso garrantzitsua da gutako bakoitzaren —boluntarioen— eta elkarten ahalegina: izan etorkinen, izan gaixoen, izan euskararen alde egiteko...

ELKARTEAK



AZTERTU

- **Auzolana** zer den ba al dakizu? Gelako inork ez baldin badu ezagutzen, galdetu inguruan eta pentsatu ea elkarten lanaren antzekoa den.
- Eta boluntarioa izatea zer den? Zure ustez, zergatik hasten da pertsona bat musu truk besteen aldeko lanean? Ezagutzen al duzu zure inguruan boluntarioen bat?
- Gaur egungo gizartean, zer iruditzen zaizu boluntarioen jarrera?

Ea... Non parte hartuko nuke nik...

Boluntarioek eta elkarteek egiten duten lana isila izaten da askotan, baina behar-beharrezkoa dugu. Herritar sentimenduaren bultzatzailea da.



PAREAK LOTU


Hona hemen gizarte esparru orokor batzuk eta aldamenen elkarte zehatzak: asmatuko al zenuke loturak behar bezala egiten?

Merkatari elkarte	Txapagain
Kirol elkarte	Ortzadar
Etorkinen elkarte	Kimetz
Kultur elkarte	Bategin
Euskara elkarte	Hitzaro
Emakume elkarte	Ordizian



SORTU

Elkarte horietakoren bat aukeratu, eta egiozu bere helburu eta lan arloa laburbilduko duen logo edo marrazki bat; pentsa ezazu elkartearen atarian jartzeko balio dezakeela.




ARGITU

Zainak eta Gotzonek, handik edo hemendik, denbora gutxian kultur talde askoren izenak entzun dituzte eta erabat nahastuta daude. Lagunduko al diegu puzzlea osatzen?

Beti Argi,
Laguntasuna,
Oroith, Burrunbazale,
Santa Ana, Urrup,
Amets Bide, Urdaneta,
Goierriko,
Ordiziako...

abesbatza,
errondaila,
dantza taldea, txaranga,
bertsolari eskola,
antzerki taldea,
musika eskola,
musika banda...



Zehaztu elkarte bakoitzaren zeregina eta helburua. Puzzlea erabat osatzeko, hona hemen aipatu gabe geratu diren beste esparru batzuk: ingurumena, osasuna, adinekoak, gazteak, bizilagunak, kirola eta gastronomia batzen dituzten elkarteak... Informazioa www.ordizia.org webgunetik jaso, eta betetakoa, benetan harrigarria egingo zaizu ikustea Ordizia bera Elkarte handia dela, eta elkar hartu beharra dagoela aurrera egingo badugu.



ESKOLA

Kattalinek ikasgelarako lau jai eguneko asteburua proposatu zuenean, andereñoak, Lazkao Txiki bertsolariaren ateraldi haien antzera, erantzun zion: 'Ez: onena, ikasketak jai bihurtzea!'. Edozein modutan, argi dago hezkuntza gizartearen motor garrantzitsuenetakoa dela, eskola-ikastolak ezinbestekoak direla gizarteak aurrera egin dezan.

Geure etxekoei galdetzen hasiz gero, seguru asko esango digute eskola publikoa Dorrean gogoratzen dutela, herri-herrian; Karmelitak ere gogoratzen dituztela, Plazuela aldean, neskentzako ikastetxea, eta, mutilentzat, La Salle ikastetxea Santa Ana aldean. Gero beste moja batzuk ere etorri zirela, Karidadekoak, orain aitona-amonen egoitza dagoen aldean. Eta baziren klase partikularrak ematen zituztenak ere, Antonio eta Víctor Hidalgo bezalakoak.

Ikastola kostata sortu zen gerra ondoko giro traketsen. Estreina, 50 ikasle inguru elkartu ziren Sanperio kaleko Pelotazale Elkartearen, Rosarito Lasa eta Mari Karmen Oiarbide andereñoekin.



GALDETU



Guraso

eta aitona-amonetara galdetuz, ikus dezagun zer nolako aldea dagoen lehengo eta oraingo ikaskuntzaren artean: gelan zenbat lagun elkartzen ziren, neskak edo mutilak ziren, zein ordutegi zuten, zenbat etxeko lan, orduko eta gaur egungo ohiturak... Horrekin batera, seguru asko orduko argazkiren bat egongo da zuen etxeetan.

Gure aitona-amonen garaiko eskola	Gure gurasoen garaiko eskola	Gure eskola

Poema hau Zainarena izan zitekeen, baina Jon Suarezek idatzi zuen.



Imajinatu une batez zeure burua Marokon, Errumanian, Txinan... Idatziko al zenuke poematxo bat han sentituko zenukeena -usainak, koloreak, ohiturak...- azalduz?

*Ez dut Txanogorritxo izena
ez naiz Paristik natorren artista bat
ez da Pintto nire txakurra
ez nuen astoa ikusi gabardinarekin.
Je m'appelle Zaina
je suis de Marrakex
eta je veus être zure laguna.*



ESKOLA GARAIKO OROITZAPENAK

Hona hemen Kattalinen familiakoen hainbat oroitzapen. Galdetu etxean edo inguruan, eta saiatu kontatzeko moduko oroitzapen edo pasadizo gehiago lortzen.



Amona Agedaren oroitzapenak

Behin, Eskarabillako jaietan bi lagun dantza lotuan ari ginela, bi mutil dantza eskean etorri, eta haiekin hasi ginen: estreinako aldia zen mutilekin aritzen ginela. Baina kontakatiluren batek moja bati dena kontatu, eta hark errietan egin zigun. Karmeliten ikastetxetik eguerdian ateratzen ginen, baina mojak zigortu egin gintuen eta bi lagunok gelan beste ordubetez egon behar izan genuen. Kontu-kontari hasi ginen orduan, eta nire laguna mojarri buruz gaizki esaka ere bai: erratza baino itsusiagoa zela, gaztetan inoiz ez ziotela dantzarik eskatuko, eta hau eta beste. Baina guk jakin ez atearen bestaldean nor eta moja zegoela, dena aditzen! Arratsaldeko eskolak hasi zirenean, mojak sekulako errietaldia egin zigun eta, jostorratz batekin, lagunari paper bat jarri zion ilean: «Hezigaiztoa eta ahoberoa naiz». Ohar horrekin gela guztietatik pasatzera behartu zuen eta gero ikastetxetik kanporatu egin zuten. Horra garai hartan nola ibiltzen ginen...

Berandu ikasi genuen irakurtzen, bederatzi bat urterekin, baserriko lanak eskolakoak baino garrantzitsuagoak baitziren. Hala ere, irakurtzen ikasteko izugarrizko gogoak genuen. Lagun gezurtero samar bat bagenuen, eta egun batean hara non esaten digun irakurtzen ikasi zuela, eta ondo gainera. Orduan guk, gezurretan arituko zelakoan, periodiku paper mutur bat eman genion irakurtzeko. Eta lagunak hartu du egunkaria eta, buelta emanda egonagatik, tipi-tapa irakurtzen hasi zen. Orrialdeari nola heldu behar zaion jakin ez hark! 'Motel, motel, zertan ari haiz?', esan genion, 'aldrebes ari haiz-eta. Horrela ez dek orria hartzen!'. Eta berak, batere larritu gabe: 'Ikusten al dezue leitzen nola ikasi deten? Orria edozein eratarra jarrita ere, irakurri egiten det. Ea zuek egiten dezuen!'. Hitzik gabe utzi gintuen.



Aitona Peruren oroitzapenak

Kattalinen aitaren oroitzapenak



Ondo gogoan dut Santa Anan zegoen La Salleko ikastetxe barruan frontoi handi bat zegoela. Igandeetan pantaila puska bat jaitzi, eta fraileek frontoia zinema bihurtzen zuten. Lehen sesioaren aurretik joanda, mutil talde bat arduratzen ginen egurrezko eserlekuak lerroka jartzeaz, eta bi sesioak bukatutakoan, denak jasotzeaz. Pelikula bi aldiz ikusten genuen, hortaz, baina ordaindu gabe, eta ordaintzen zigutenarekin Ibañezenean edo Margarirenean goxokiak erosi, eta gero futbolerara jolastera joaten ginen, Cigales tabernara.

Kattalinen osabaren oroitzapenak


Garai hartan eskolan jotzea ez zen horren harritzekoa ere. Gurasoek maisu-maistrei lasai jotzeko esaten zieten, umeak zentzatu eta formaldu gintzen. Irakasleen artean, bazen bat bereziki egurra eman zalea, belarrondokoen zalea, alegia. Behin batean, ikasturtearen bukaeran, honela galdetu zuen ikaskideen artean: aurten geratu al da gelan bakarren bat jaso gabe? (Jaso, kaskateko edo kolperen bat jasotzeaz ari zen, noski). Eta mutil bakar batek besoa altxatu zuenez, hari zuzendu zitzaion: 'Etorri zaitez, polit hori', eta mutila hurbildutakoan, dinbi-danba, bi belarrondoko eman zizkion. 'Horrela ikusiko duzue denekin berdín jokatzen duda-la...'. Baina hori inondik ere ez zen egia, batzuek-batzuek besteek baino askoz gehiago jasotzen zutelako...

HERRIKO KOMUNIKABIDEAK

Amona Agedak kontatzen du garai batean Arantzazu aldizkaria jasotzen zutela baserrian, eta Arantzazutik fraile bat motoan etortzen zela kobratzera. 'Urteren batean ordaindu gabe geratu ginen, frailearen motoak baserrirako aldapa zorrotza igotzerik ez zuelako...!'.
.....



Arraioa
Beiz'e kobrau gabe...



Goierri barrena, urte askoan *Goierri* aldizkaria egin eta zabaldu izan zen, Jon Arano eta



hainbat lagunengan lan eskergari esker. Hala ere, gero Urretxu-Zumarragako *Otamotz* aldizkariarekin elkartu, eta *Goiberri*

astekaria irakur dezakegu gaur egun. Horrekin batera, aspaldidanik, urtean behin jaietako *Santa Ana* aldizkaria plazaratu izan da, *Hitza* eguneroko informazio iturri idatzia dugu, eta Ordizian egoitza duen Goierri telebista ere nabarmendu beharra dago. Denetan ere, informazioa bertatik bertara, albisteak guztion eskura.



ZU ZERORI KAZETARI

Aizue! Zergatik ez dugu froga egiten eta, egun batez, kazetari lanari ekiten? Zaina eta Gotzoni Ordiziako txoko kuttunen bat bideoan grabatu diezaiekegu. Elkarrizketa bat egin diezaiokegu gustuko dugun pertsonaren bati. Edo gure eskola edo ikastolako albisteren bat idatzi...





ADIORIK EZ

Ni, zera... Nik, ba... Horixe, sekretu bat kontatu nahi dizuet.
Baina badakizue, aitona Peruk zer esaten duen:

Marabara, maraberi, kontakatilu hiztuna bertan hil bedi!

Aho txikiarekin esango dizuet, isilka-misilka: triste samar nago hiru unitate hauek bukatu ditugulako. Baina zer arraio, pozik ere banago asko ikasi dugulako, bitartean gu ere Ordiziako historiako protagonista izan garelako —eta izango!!!—, eta jende asko ezagutu, eta lagun asko egin dugulako.

Lehenaldiaren historiaz jabetu gara, misterioa den etorkizunera zabalik gaude, baina etorkizuna prestatzen hasteko orainaldia dugu opari. Eta ni jakinluzea naiz edo, amona Agedak esaten duen bezala, *kuriosea...*, eta ikasten sekula ez da amaitzen. Bai, zer arraio, pozik ere banago, edo 'pozarren', Gotzonek esaten duen bezala.

Azken batean, urtea bera ere abenduaren 31n bukatzen da, baina ez al da ba urtarrilaren 1ean hasten? Eta gau misteriotsu horretan, betiere Beti Argi bandaren eta Errondailaren laguntzaz, zer kantatzen dugu pozaren pozez ordiziarrok? Bai, asmatu duzue, nire izeneko kantua!!!



*Kattalin, poxpolin.
Elizatikan konbenturaino
egin digute galtzara (bis).
Azkeneko eguna da eta
azkeneko eguna da eta (bis)
goazen guztiok dantzara.
Txin txin txibili doinua txin txin
txibili danbolin.
Horrela bizi bagina beti
Ondo ginake, Kattalin. (bis)*



ebpn
euskara
ezagutu
entzun
erabili